

## Postale krudel bat, maitekiro

HASIER ETXEBERRIA



### BARKATUKO

didazue. Oporretan nago eta urriti. Eguzkitan eta ur gardenetan murgilari.

Aingeru eta pailazo arrainak, barrakudak, tiburoiak, koralak, txibiak, morenak... denak daude hortxe nere muturren aurrean. Zer egingo zaio, bada? Gezurra dirudien arren, batzuetan tokatu egiten da eta, gaur neri.

Sekula ez nuen uste izango halako aukerarik izango nuenik. Lekuak ederretan nabil, hondartzarik horietan, palmendoen gerizetan. Cumbiaren doinupean. Begiak berez irikitzen zaizkidanean esnatzen naiz eta ez daukat zer eguraldi dagoen leihotik begiratu beharrik, badakit: zoragarria egiten du.

Tripa barrura sartuta, tanga xume bat jantzita nabil, hondarretan, ia biluzik. Lotsagarri baina ez zait axolarik. Bukatu egin zait Europa zaharretik ekarritako Nivea potoa. Hemengo dentetan ez dago halakorik. Kokoloz egindako igurtzi baten berri baizik ez dakite, gizagai-xoek.

Jateko, ordea, ez dut arazorik: armadilloak, matxinsaltoak, artopilak... denak gustatzen zaizkit. Mahaizalea izan jaiotzetik! Edateko ere, ia denetik dago: zukuak, ronak, freskagariak eta tekekak. Agian ardo eta likoreak faltako dira, baina hemengo bizitzak daukan azukre pilorekin likoreak ez leuakae zer eginik.

Paloma izeneko neska eder batek kaixo esan dit kalean eta ia Roberto naizen galdetu dit gero. Ezetz esan diodanean, pena handia hartu du eta sufri ez dezan, hondartzagainean afaltzekotan gelditu gara biok hamarretan. Ilargipetan.

Ez dakit noiz itzuliko naizen. Ez daukat presarik. Irakurtzeko ekarri dudana nobela potoloa ez dut oraindik hasi eta igoal ez dut hasi ere egingo.

Pozik nago. Oso pozik. EGUNKARIAko irakurleen falta baizik ez dut gutxiesten. Ezin egon zuek gabe. Horregatik bidaltzen dizuet postale hau ez uda eta ez negu, martxoaren erditik.

## Zentzuz, otoi

TXILLARDEGI



**EGUN** hauetan, eta PNVaren lortsagabekeriak medio. Euskal Herriaren arazo nagusi bat plazaratu da berriro. Aspaldiko partez!

«Abertzaleen arteko batasuna» aipatu baita. Hots, edozein ekinbide abertzale bateratutan barrena abiatu nahi izanez gero, *Autodeterminazioa* bihurtu behar da gure nazio-politikagintzaren *ardatz*.

Hortaz, abertzaleen arteko ekin-tza-batasuna mintzatuko bagara, PNV-PSOE Paktoaren desegintzaz mintzatu beharko dugu.

Hori bakarrik ez. PSOEren esutik, eta beste hamaika ostikada larriren ondoren, Ikastolaren likidazioa ere hartu du bere gain PNVak, euskal eskola osoa osoki espainiar-tuz.

Artean, gure industriaren heriotza ere 'ikurindu' du. «Hay que descapitalizar el país» hura, bere egin du.

Lotsagabekeria borobila da 1993an PNVak 'abertzale' hitza aipatzea ere, beraz.

Baina, kasu: zentzugabekeria hutsa da Euskal Herriaren berreirikuntzarri buruz, PNVa lankidetzat hartzea.

PNVaren proiektua 'Cantabria Oriental' da (con silbote norfeo y cocido madrileño), PNVaren helburua ez da Euskal Herria.

Arana-Goirik garbi ikusi zuen Euskal Herria eraikiko bazen, Partido Carlista Vasco-Navarro delakoaren kontra eraikiko zela. Ez karlistekin esku ezku.

Gaur egun, 1993an, Euskal Herrian abertzale askok, gehiegik, gure Aberria PNVaren kontra ez bada, ez dela eraikiko sinetsiko ez duten artean, jai dago.

## Navarra hoy

### Oztopoak euskararentzat

Asteazkenean Legebiltzarraren Jose Maria Rodriguez Otxoa Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako zuzendari nagusiak emandako berria, euskarazko adarretan ikasleen matrikulazioari buruzko informazio kampaina egiteko beharrezko ziren eroldea datuak lruñeko udal-letxeak behin eta berriro ukatu dituela zioena, guztiz etsigarria da agerian uzten duen sentiberatasun eskasarengatik, erakustezina da nahitazeko lankidetzaren instituzionalaren ikuspegitik eta erabat argitzen du zein den udal horren buruan dagoen alderdiaren borondate politikoa.

Pentsaezina zen eragozkera instituzionalaren erakustaldi arranditsu hau, euskara irakaskuntzan sartzeari buruz nafar gehienek aldeko jarrera azaltzen duen inkesta bat foru Gobernuak argitaratu eta egun gutxi batzuetara gertatu da, eta horrek are gehiago nabarmentzen du aiherez beteriko jardunbide horren alderdike-

## HEMEROTEKA



TUCINO / DEIA

ria, nahiz eta aihor horiek, UPNko buruzagien jendaurreko adierazpeni eta berorien keinu politikari kasu egitera, zorionez gaitzuta zidruditen.

EDITORIALA

### egin

### Osasuna, negozioia eta erantzukizunak

Badirudi tentazio orokor bat dagoela bai eremu pribatuari bai publikoaren osasun arazoek gaineko erantzukizunei itzuri egiteko. Hor dago, epaiaren zain, Zaragozan azeleradore linealaren fun-

tzionamendu okerrak eragindako hildakoengatik eginiko epaiketa, edo koltzaren kasuan Administrazioaren jokabidea argitzeko oso prozesu luzea. *Beti dago nori pilota pasatu edo, bestela, hori airean uzteko formula aurkitzerik.*

Norbanakoaren osasuna eta kolektibitatearena ere garrantzitsuegiak dira horien moduko arazoak inolako zigorrak gabe pilatzen joan daitezkeen uzteko. Gizarte eskakizun logikoa da ospitaleak birtarkeko guztiak izan behar dituztela, hala nola ordutegi egokiak bete ditzaketen eta arreta zorrotza jartzea eska dakiekeen medikuak egotea,

zientziak dakartzen aurrerapenen jabe izango direnak. Administrazioaren zereginak da osasun sare publikoak arreta hori garrantzitzeko bitartekoak izango dituela ziurtatzea. Osasuneta pribatuari diru gehiago izateagatik askoz hobeia izateko aukera ematea, osasuna herritar bakoitzaren eskubidea izan beharrean negoziogai gisan sustatzea da. Horregatik, gainera, uiertezinak dira preserbagailuen kanpainaren aurkako epaia edo «abortatzeko pilula» deritzona nahi duten amakumeen eskura jartzeko adierazitako eragozpenak. Osasuna ez da negozioia.

EDITORIALA

## UZENDARIARI

### Intsumisioaz faxismoa hautsi

Jakin dugunez, 'Frente Nazional' Espainiako talde faxistaren gazteek Euskal Herrira etorri behar dute, Espainiako ejerzitoari omenaldi bat egitera eta intsumisioa zein objezioaren bideak hartu ditugunon kontra egitera. Hona etortzen dira, hemen estatuko intsumisioen kopururik handiena dagoelako, eta faxista hauen uestez arrisku handikoa litzateke 'hazi madarikatu hau' zabaltea. Bere jarrera guztiz ulergarria da, azken finean, militarren familetatik ateratzen bait dira hitlerkume hauek, eta aitaren lana defendatu behar. Baina hitlerkume hauengatik eta

beren probokazio harroengatik kezkatu behar al dugu antimilitaristok? Kezka-garria da benetan gertatzen ari den faxismoaren birpiztea, beren burua faxistatzat duten gazte hauengatik ezezik, faxista deiturik izan gabe faxisten jokabideak daukan jende poteretsuarengatik ere, eta ulertu nahi duenak... ulel dezala.

Baina kasu honetan ia eskerrak eman beharko genizkieke gazte faxista hauei gauzak argi ta garbi uzteagatik, argi gelditzen bait da zeinek defendatzen duten sistema militarista, zeinek diren ejerzitoa maitatzen dutenak, zeinek duten ejerzitoa propioztat; azken finean beraien da, berriak defendatzen duten ezlegezko gizarte faxista bera defendatzen bait du, etaaldi

berean Espainiako gobernuari moztorraoa kentzen diote eta zein bantotan dagoen argi ikus daiteke, NATO militarren, Frente Nazionalaren, eta hitlerkumeen bando berean.

Gazte faxista hauen jokabideak arrazoi eta indar gehiago ematen digu militarren eta militarismoaren aurka borrokatzeko, badakigu ejerzitoa eta soldaduzko faxismoaren eskolak direla eta horren kontra jarraituko dugu borrokan, inolako faxistak geldiarazi ezinik.

Faxismoaren aurka intsumisioa  
KAKITZAT KOORDINAKUNDE  
ANTIMILITARISTA  
Donostia

## GAIA JARRITA

### Garroña



Araba ondoan dago nik ez dakit nork jarrita nor ez da asustatuko munstro hori ikusita ez dakit zenbat metroklin zer nolako amanita nonbait konturatu gera ez dela oso polita mila aberia dauka eta zahartzen hasita zertan hainbat uranio eta hainbat plutonita nik bezala nahi baduzu Garoña ikusi itxita Gasteizen daukagu denok uka ezinezko zita.

ZIGOR ENBEITA

## Egunkaria

Batzuk: Euzkadiak, 725644; Lege Gordailat: SS 800/90

**OD** OJDren IKUSKATZEA BIDERATUA  
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE  
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI  
Gereñteak: FERMIN LAZKANO  
Zuzendaria: INARI URJA  
Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRITA  
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZO HARTSUAGA  
Sustapena: NERIA AZURUMENDI  
Publizitateak: MARI JOSE SARASA  
HELBIDEAK  
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02. Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egiltze soziala, Publizitate eta Administrazio: Antso Jakituma, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Araba: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Irritzin dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11